



ORMAETXEA-IPARRAGIRRE (Aduna)

Benjaminak B. Partida guztiak irabazita iritsi dira finalera adunarrak. Ligaxkako hiruretan erraz nagusitu ziren, eta ondorengo kanporaketetan izerdi gehiago bota behar izan zuten. Bikote bizia eta final polita.



ARANDIA-ELOLA (Albiztur)

Benjaminak A. Bikote sendoa osatzen dute albizturarrek. Txapelketa bikaina eginez iritsi dira finalera; partidarik galdu gabe. Aurkariak, gainera, 10 tanto egitera oraindik ez zaizkie iritsi. Ikuskizuna ziurtaturik dago finalean.



PERURENA-TOLOSA (Ibarra)

Benjaminak A. Aurkariei beldurra sartzeko moduko bikotea osatu dute ibartarrek. 16-7tik ez zaie pasa inor. Finalera oso indartsu iritsi dira, eta Arandia-Elolaren aurkako partida ikusgarria izango dela esan daiteke.



PLAZA-ZUFIRIA (Villabona)

Benjaminak B. Behar Zana Elkarteko pilotariek partida bakarra galdu dute txapelketan, Tejeria-Tejeriaren aurka 16-6, lehen ligaxkan. Ondoren, final-laurdenetan, berriro elkarren aurka jokatu zuten eta hor bai, 16-11 nagusitu ziren. Final orekatua aurreikusten da.



TEJERIA-ZUBILLAGA (Villabona)

Alebinak, gomazko paletaz. Ligaxkako hiru partidak erraz irabazi zituzten billabonatarrek. Finalerdietan, orde, latz su-fritu zuten Agirre-Navarro-Zabalaren aurka. Bikote sendoa osatzen dute.



URKOLA-ARANBURU (Asteasu)

Alebinak, gomazko paletaz. Pilota gogor astindu eta huts gutxi egiten dituen bikotea. Partidarik galdu gabe iritsi dira favorito argirik ez duen finalera.



RUIZ-GOROSTIAGA (Amezketza-Altzo)

Alebinak, eskuz. Ataria Txapelketan ohiko protagonistak bilakatzen ari diren pilotariak. Gorostiaga atzean sendo eta Ruiz tantoa amaitzen bizi.



CARRASCO-AGIRRE-UZKUDUN (Asteasu)

Infantilak, gomazko paletaz. Ligaxka bi garaipenekin amaitu zuten, Maiz-Arrietak bezala. Ondoren, finalerdietan elkarren aurka jokatu zuten, eta partida ezin orekatuagoa izan zen, 20-19ko emaitzarekin.



UGARTEMENDIA-AGIRRE (Alegia)

Infantilak, gomazko paletaz. Txapelketako bikoterik indartsuena izan da. Ligaxkako lau partidak irabazi zituzten bakarrak. Hala eta guztiz ere finala desberdina izaten da: ea nola erantzuten duten.



IPARRAGIRRE-ZABALA (Aduna)

Alebinak, eskuz. Eskuetatik ez da nahi bezala iritsi Zabala finalera. Finalerdietan sufritzea tokatu zitzaion, partida gogorra izan baitzen. 15eko atsedendialdiarekin txapela irabaztera aterako dira Iparragirre eta Zabala.



ITURRIOTZ-HERRERO (Alegia/Asteasu)

Kadete-jubenilak, gomazko paletaz. Txapelketako finalik ikusgarrienetakoia izan daiteke azkenekoa. Herreroaren maila izugarria da, eta Iturriotzekin bikote oso indartsua osatzen du.



ARANBURU-USABIAGA (Asteasu)

Kadete-jubenilak, gomazko paletaz. Herreroaren teknikak Aranbururen indarra izango du aurrean. Asteasuarrek bezala pilota inork ez du astintzen. Benetan final ikusgarria izango da.

ANTOLATZAILEAK:

'Tolosaldeko Ataria' eta Atzapar (Asteasu), Behar Zana (Amasa-Villabona), Intxurre (Alegia-Altzo-Ikaztegieta), Kuku Pilota Elkartea (Anoetas), Sendi Ekintza (Ibarra), Tolosa CF-Aurrera (Tolosa), Txulobi (Aduna), Zazpilturri (Amezketza) eta Ziotza (Zizurkil) pilota elkarteak, eta Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Berastegi, Bidania-Goizatz, Ikaztegieta, Lizartza, Leaburu-Txarama eta Tolosako pilota eskolak.



AGIRRE-HUITZI (Asteasu)

Infantilak, eskuz. Bikote indartsua. Adin honetan pilota gogorrekin hasten dira eta pilotaren abiadurak jauzi bat ematen du. Asteasuarrek ederki moldatzen dira eskakizun horietara.



ARRILLAGA-ETXABE (Tolosa/Belauntza)

Infantilak, eskuz. Arrilaga artista hutsa da. Bikoteko pisua berak ematen du. Partida erabakitzekeo balibideak dauzka. Etxabek atzean laguntza ematen dio Arrilagari, nahiz eta aurrean ere jokatu izan duen.